

EROSKI ari da Zurekin eredu zabaltzen**GERNIKAKO EROSKI HIPERMERKATUA BERRITU DUTE, ETA ORAIN ESPEZIALIZATUAGOA DA PRODUKTU FRESKOETAN ETA AUTOKTONOETAN**

- **Hipermerkatuak langile gehiago ditu orain, hamahiru lanpostu sortu baitira zaharberritzearekin**
- **865.000 euro inbertitu dira berritze lanetan**
- **Urteko lehen hiruhilekoan hamabi denda eraldatu ditu EROSKIak Zurekin eredu komertzial berrira Euskal Autonomia Erkidegoan**

Gernika, 2015eko apirilaren 16a.- Gernikako [EROSKI](#) hipermerkatuak gaur inauguratuko du, 18:00etan, Zurekin eredu komertzial berrira eraldatu izana. Hala, bezeroei tratu pertsonalatuagoa eman nahi die, tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen salmenta indartu, elikadura osasungarria sustatu eta eguneroko erosketan aurrezteko modu berriak eskaini. Helburua da gaurko eroslearen behar eta balioetara hobeto egokitutako eskaintza egitea. Obran, 865.000 euro inbertitu dira.

Otsailaren erdialdera hasi ziren berritzen, eta arreta berezia ipini dute freskoen eremuan, osoki berritu baitute; gainera, tokiko sasoiko produktuei ere leku handiagoa egin zaie. Produktuen artean, nabarmentzekoak dira Ajangizko ogia, orantzarekin egina, Kortezubiko babarrunak eta Morgako txakolina. *"Kontsumitzaileak gero eta gehiago estimatzen ditu tokiko eta eskualdeko produktuak; horregatik, Zurekin ereduari, garrantzi handiagoa hartzen dute, eta beren ezaugarri gastronomiko eta kulturalak nabarmentzen ditugu"*, azaldu du Oskar Perez de Eulatek, hipermerkatuko kudeatzaileak.

Gernikako EROSKI hipermerkatu eraberrituak hamahiru lanpostu sortu ditu, eta orain, 93 langile ditu osotara. Lantaldeak 830 prestakuntza ordu baino gehiago jaso ditu, bezeroari irtenbide hobek emateko eta dendan lan egiten duten profesional taldeek berek autogestioan sakontzeko.

"Obrak iraun bitartean, hipermerkatua irekita egon da. Eta bezeroari ahalik eta trabarik txikiena egiten saiatu gara, lan eremuak hesituta. Bi hilabete eman ditugu berritzen, eta ziur gaude emaitza geure bezeroen gustukoa izango dela", esan du Perez de Eulatek. *"Denda eraldatuetan harrera bikaina izan du Zurekin denda eredu berriak, eta %10 handitu da bisita kopurua"*.

Berrikuntzen artean, nabarmentzekoa da atal guztietan egin dela arreta pertsonalatuaren alde. *"Harakina ipini dugu harategiko mahaian; gainera, Eusko Labelen kalitate bermatuko produktu kopurua handituko da"*, esan du Perez de Eulatek. *Arreta pertsonalatu pixkanaka garatuko da, eta kontsumitzaile bakoitzari egokitutako eskaintzak eta promozioak egiten hasiko da EROSKI Klub txartel atera berriaren bitartez, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko bezeroen %85ek dagoeneko erabiltzen duten.*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
OSCAR GONZALEZ URIARTE

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

EDURNE IZQUIERDO
ZIORTZA BERISTAIN

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

Bestalde, hipermerkatu berriak merkatu elektronikoaren aldeko apustua egin du, ekipamendurako produktu katalogo zabal bat merkaturatzeko (oihalgintza, bazarra, etxeko tresnak eta abar). Produktu horiek arreta pertsonalizatu berriaren bitartez eskaintzen zaizkio bezeroari, eta zuzenean etxera eramaten zaizkio EROSKIren berme guztiekin.

Gainera, saltoki berrituak azken berrikuntza teknologikoak dakartza efizientzia energetikoa hobetu eta ingurumenean duen eragina gutxitzeko. Hala, Gernikako hipermerkatu berriak ixte sistemak ditu hozte altzarietan, elikagaiak kontserbatzeko.

Liderra tokiko produktuetan

EROSKI liderra da tokiko produktuen salmantan: euskal ekoizleen 9.000 produktu inguru dauzka. Kooperatibak eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten 2013an, tokiko elikagaien sektorea bultzatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen ehunaren aniztasunari eusteko.

Iaz, 2.000 euskal hornitzaileekin baino gehiagorekin aritu zen kooperatiba lanean, eta 600 milioi euro baino gehiagoren erosketak egin zituzkien urte osoan.

Elikadura osasungarriaren promozioa

EROSKI lan handia egiten ari da elikadura osasungarria sustatzeko: "Elikadura Ekologikoa eta Dietetikorako" atal berriak ditu, 300 produktu espezializaturekin baino gehiagorekin. Horrenbestez, Gernikako hipermerkatua erreferentziatzeko bihurtu da, beren elikaduraz arduratzen direnentzat edo glutenik gabeko, azukre gutxiko, gatz gutxiko eta horrelako beste dieta batzuk egiten dituztenentzat.

Osasunaren aldeko apustu horrekin batera, lurrindegia eta parafarmaziaren atala ere indartu egin dute; zainketa pertsonalean prestakuntza berezia jaso duten bi profesionalek arreta pertsonalizatua ematen dute.

EROSKI Gernikan

EROSKI 1991tik dago Gernikan; urte horretan ireki zuen bidaia bulego bat. Handik urtebetera, Zurekin eredura aldatu berri den hipermerkatua ireki zuten. Horietaz gainera, EROSKI Center supermerkatu bat ere badago herrian.

Urteko lehen hiruhilekoan hamabi denda eraldatu ditu EROSKIek Zurekin eredu komertzial berrira Euskal Autonomia Erkidegoan, 2016rako Plan Estrategikoaren bigarren zatian datorren bezala. Urte hasieran hasi ziren berrikuntzetan, eta janari freskoetan oinarritu dira. Hala, epizentro bihurtu dira freskoak saltoki berrietan, eta tokiko sasoiko produktuek garrantzi handia hartu dute.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
OSCAR GONZALEZ URIARTE

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

EDURNE IZQUIERDO
ZIORTZA BERISTAIN

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es